



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

LURRALDEKO KONTUEK GENERO IKUSPEGIA ARAU MODUAN TXERTATZEA ESKATU DABE BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK

- **Ogasun eta Finantzetako Batzordeak Kontu Orokorren Foru Arauaren (5/2006 Foru Araua) aldaketea onetsi dau, eta Osokoak berretsi beharko dau aldaketea.**

(Bilbon, 2020ko zezeilaren 18an). Bizkaiko Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantzetako Batzordeak Aurrekontuen ganeko Foru Arau Orokorren aldaketea onetsi dau gaur, Lurraldeko urteko Kontu Orokorretan genero ikuspegia jasoten daben programak txertatu daitezcan. Araua aldatzeko proposamena EH Bildu taldeak aurkeztu dau, eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen zuzenketa-eske “teknikoa” onetsi dau.

Aldaketak epigrafe barri bi jasoten ditu Foru Arauaren 105. artikuluan, Kontu Orokorren genero ikuspegiagaz egindako gastu programen ebaluazio txostena laburbilduta jaso daian.

Batzarretako talde guztiak agertu dira ekimenaren alde, baina Talde Berezia (PP) abstenidu egin da, horren “formaren eta tramitazioaren” ganean “zalantzak” daukazalako. Aldaketea Osokoak berretsi beharko dau.

Batzarretako taldeek autortu dabenez, Aldundiak bere gain hartu dau genero ikuspegia txertatzearen alde gero eta pausu gehiago emoteko konpromisoa, 2018an, “Enplegua eta Ekintzaitza” programan genero ikuspegia eukien aurrekontuen ganeko esperientzia pilotua martxan jarri eta hurrengo urtean Bardintasunerako Foru Araua onetsi zanetik. Aurrekontuen ganeko Foru Arau Orokorren aldaketea bardintasunerako politiketan aurrera egiteko “beste pausu bat” da.

IRUARRIZAGAREN AGERRALDIA, 2017KO KONTUAK DIRALA ETA

Saio berean, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatua EH Bilduk eskatuta etorri da, 2017ko ekitaldiari jagokon Bizkaiko Lurralde



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Historikoko Kontu Orokorraren Foru Araua azaltzeko, Ángel Quintanilla Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko (HKEE) presidenteordeak Batzarretan urte horretako Fiskalizazino Txostena azaldu eta hiru astera.

Emaitzen kontuaren datu garrantzitsuenak aztertu eta gero, Iruarrizagak azpimarratu dau, aurreko saioan Quintanillak egin eban moduan, kontu horreek “garbiak” dirala, “Ondarearen eta finantza egoeraren irudi fidela” erakusten dabelako. Diputatuak azpimarratu dauenez, Bizkaiak “ondo” bete ebazan urte horretan kontabilidade eta ekonomia arloetako betebeharrak, eta gogoratuaz dauenez, HKEEk Lurraldea osatzen daberen erakundearen kontuen ganeko “aldeko” eretxia emon eban, “ezelango salbuespenik adierazi barik”.

Iruarrizagak azaldu dauenez, Bizkaiko Kontu Orokorrak “312 milioi euroko” aurrezpena erakutsi eban, diru-sarrera eta gastu arruntak kontuan izanda; “155 milioiko” inbertsino garbia; eta “55 milioiko” superabita aurrekontuan. Zifra “positiboak” dira, bere berbetan.

Arantza Urkaregik (EH Bildu), bere aldetik, superabita kritikau dau, bere eretxiz “kezkgarria” dalako, ez diralako lurraldearen “beharrak” bete. Modu berezian kritikau dau Gizarte Ekintzak “7 milioi euro” gastau barik itzi izana, eta GUFEEK superabita eukitea be ez dala egokia esan dau. Urkaregik gogoratuaz dauenez, HKEEk “foru enpresen kontrol handiagoa” eskatu eban bere egunean.

Talde Bereziaren / PP Bizkaiaren izenean, Amaya Fernándezek Epaitegiak bere egunean deskribidu ebazan “zazpi salbuespenak” aitatu ditu, “ia guztiak foru erakundeetan”, eta Seed Capital soziedatean izandako beharginen kontratazinoari jagokona azpimarratu dau. Gabezia horreek konpontzeko “konpromisoa” eskatu deutso Aldundiari, batzuk “behin eta barriro errepiketan diralako”.

Xabier Benito Elkarrekin Bizkaia taldeko ordezkariarentzat deigarria izan da agerraldi hau egiteko behar izan dan denporea. “Hiru urte tarte luzea da”. Eta, EH Bilduk egin daueren moduan, kritikau egin dau kontabilidadearen itxierak 30 milioi euroko superabita erakustea. “Ez dogu positiboa izatea ulertzen”.

Euskal Sozialistak taldearen izenean, Jesús Ortizek txostenaren emaitza “positiboa” azpimarratu dau, eta diputatuaren azalpenak eskertu ditu. Horrez gain, hurrengo ekitaldietan akatsak zuzentzea eskatu deutso.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Antzera egin dau berba Euzko Abertzaleak taldeko Unai Lermak, eta txostenak Aldundiaren “finantza egoera ona” erakusten dauela azpimarratu dau, kontuek “modu zorrotzean erakusten dituelako Aldundiaren Ondarea eta finantza arloko fluxuak”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA PIDEN QUE LAS CUENTAS DEL TERRITORIO INCORPOREN POR NORMA LA PERSPECTIVA DE GÉNERO

- **La Comisión de Hacienda y Finanzas aprueba la modificación de la Norma Foral General Presupuestaria (Norma Foral 5/2006), cambio que deberá ser ratificado por el pleno.**

(Bilbao, a 18 de febrero de 2020). La Comisión de Hacienda y Finanzas de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado hoy una modificación de la Norma Foral General Presupuestaria para que se recojan en las Cuentas Generales anuales del Territorio, los programas que han incorporado la perspectiva de género. La propuesta de modificación de la norma la ha presentado el grupo EH Bildu, que ha aceptado una enmienda “técnica” de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos.

El cambio incluye dos nuevos epígrafes del artículo 105 de la Norma Foral para que la Cuenta General incorpore resumidamente el informe de evaluación de los programas de gasto elaborados con perspectiva de género.

La iniciativa ha sido apoyada por todos los grupos de la Cámara vizcaína, si bien el Grupo Mixto (PP) se ha abstenido por observar “dudas” en relación a “la forma y la tramitación” de la misma. La modificación deberá ser ratificada ahora en pleno.

Según han reconocido los grupos junteros, la Diputación ha asumido el compromiso de dar cada vez más pasos en pos de la incorporación de la perspectiva de género en los Presupuestos desde que en 2018 puso en marcha la experiencia piloto sobre unos presupuestos con perspectiva de género, en el programa “Empleo y Emprendimiento”, y al año siguiente aprobará la Norma Foral de Igualdad. La modificación de la Norma Foral General Presupuestaria supone un “paso más” de cara a avanzar en políticas de igualdad.

COMPARECENCIA DE IRUARRIZAGA POR LAS CUENTAS DE 2017



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En la misma sesión, el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha comparecido, a petición de EH Bildu, para explicar la Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia de 2017, tres semanas después de que Ángel Quintanilla, vicepresidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP), explicara y detallara el Informe de Fiscalización de ese año en la Cámara vizcaína.

Después de repasar los datos más significativos de la cuenta de resultados, Iruarrizaga ha destacado, como lo hiciera Quintanilla en aquella ocasión, que estas cuentas son “limpias”, ya que reflejan “la imagen fiel del Patrimonio y la situación financiera”. El diputado ha subrayado que Bizkaia cumplió “bien” ese año con sus obligaciones contables y económicas, y ha recordado que el TVCP ya emitió una opinión “favorable” sobre las cuentas de las entidades que integran el Territorio “sin señalar salvedad alguna”.

Según ha explicado Iruarrizaga, la Cuenta General de Bizkaia arrojó un ahorro de “312 millones de euros” teniendo en cuenta los ingresos y gastos corrientes; una inversión neta de “155 millones”; y un superávit presupuestario de “55 millones”. Son cifras “positivas”, ha valorado.

Por su parte, Arantza Urkaregi (EH Bildu) se ha detenido en criticar el superávit, que lo ve “preocupante” ya que no se han cubierto “las necesidades” del territorio. Ha criticado especialmente que Acción Social no llegara a gastar “7 millones de euros” y ha afeado también el superávit obtenido por el IFAS. Urkaregi ha recordado que el TVCP pidió en su día “un mayor control de las empresas forales”.

En nombre del Grupo Mixto / PP Bizkaia, Amaya Fernández ha mencionado las “siete salvedades” descritas en su día por el Tribunal, “casi todas en los entes forales,” citando la referida a la contratación de personal en la sociedad Seed Capital. Ha pedido un “compromiso” para que la Diputación subsane estas deficiencias, ya que “algunas son reiterativas”.

Al representante de Elkarrekin Bizkaia Xabier Benito, le ha llamado la atención el tiempo transcurrido hasta esta comparecencia. “Tres años es un plazo largo”. Y, al igual que EH Bildu, ha criticado que el cierre contable arroje 30 millones de euros de superávit departamental. “No entendemos que sea positivo”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En representación de Socialistas Vascos, Jesús Ortiz ha destacado el resultado “positivo” del informe y ha agradecido las explicaciones del diputado, al que le ha pedido que se corrijan las deficiencias en futuros ejercicios.

En el mismo sentido se ha pronunciado Unai Lerma, del grupo Nacionalistas Vascos, quien ha subrayado que el informe pone de manifiesto la “buena situación financiera” de la Diputación, ya que las cuentas expresan “fielmente el Patrimonio de la Diputación y los flujos financieros”.